

triste baten, zuri argitaratzeko bialdutenean deutsudazan *Agurrak*, eta azkenean bazkalduztakoan beste *Alabantzak* Gernikako Arbolaren aire ederrean. Ondo baderichazu, ipiñi daikezuz Errebistan; eta aurrez emonik datortzuzan eskerrak, agindu daikiozu beste mesede bat zeure betiko adiskide oni.

Ochandion 1894.^{ko} Erregeen egunean.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Errosari, Mundargoko Kontzeziñoko Komentuan,

Moja-gei sartu zanean kantauriko agurak.



I.

Agur, agur, Errosa,
Zoaz Komentura,
Zoaz ez jatsiteko
Ain mundu galdua;
Zoaz, zoaz, zoaz gaur,
Libano altura,
Andik igo dagizun
Birjiñen tronura.

II.

Zoaz triste ichita
Aita eta ama,
Neba ta aitzai emonik
Laztan samur bana;
Zoaz, zoaz betiko,
Esposoagana,
Jesús dalako zure
Maitegarri dana.

III.

Mats parreak badeutsa
Eltzen egurrari,
Errosak gura deutsa
Gaur kurutzeari;
Biotz ta arima bat eiñ
Bertan ill zanari,
Eriotzan koroia
Artu dayan sari.

IV.

Eriotzeak danok
Gaitu arrapauko,
Bere sareeratik
Ez gara librauko;
Zorionekoa da
Jayoa gorako,
Errosa zu zara bat
Zu bai, Zerurako.

Batuko algara ango
 Zelai zabaletan,
 Anglo zedro mardoen
 Kerizpe ederretan;

Inozente, Birjiña,
 Ta ezkonduok bertan,
 Jaunaalabetako
 Betiko urtietan.

**Errosari, Mundragoko Kontzeziñoko Komentuan,
 Moja-gei sartu zanezn kantauriko alabantzak.**

I.
 Tortola kantari bat
 Berez gaur kayolan,
 Sartu dalako nai dot
 Iragarri nor dan;
 Choriak chorro chio
 Eiñ arren arbolan,
 Onek nai dabelako
 Birjiñen chabolan;
 Bertan bizi dan Bildots
 Gozoaren ondran,
 Gero kantau dagion
 Goyan leku oban.

II.
 ¿Zelakoa ete da
 Uso orren boza?
 Dirudi Aingerucho
 Baten dala otsa;
 Zelakoa dan barriz
 Beroren biotza,
 Garbiro kantetako
 Bere enaz lotsa,
 Jaunarentzat dalako
 Lora aproposa,
 Zeruak gaur goiisetik
 Agertu dau poza,

III.
 ¡Nok leukeken Errosak
 Daukan suertea!
 Diru guztiak baño
 Bera da obea;
 Izan arren Jesusen,
 Len azuzenea,
 Eta bioleta bat
 Oso umilldea,
 Amodio garbizko
 Gaur da larrosea,
 Dalako Dontzella ta
 Gañera Mojea.

IV.
 Jardun dalako berau
 Birtute danetan,
 Dirudi lorachozko
 Sorta bat benetan;
 Bere usaiñ ederra
 Komentu onetan,
 Laster asiko dira
 Lagunak sometan,
 Ta bere organuko
 Soñu gozuetan,
 Esango dabe «orain
 Gagoz zeruetan.»

V.

¡Ze bizitza on eta
 Zelako dontsua!
 Munduan Komentu bat
 Da Paradisua;
 Au da zeru loren
 Ortu zarratua,
 Lurreko aingeruen
 Abia lekua,
 Bertan bizi dalako
 Santuen Santua,
 Dabidek alabetañ
 Eban Jaungoikua.

VI.

Beraz maite daikezu
 Errosa zeldrea,
 Egodun chiki batek
 Legeche lorea;
 Bakit etzareala
 Baña, zu erlea,
 Ezpada egazti bat
 Askozaz obea,
 Largetan dozunean
 Beko kayolea,
 Zerura egatzeko
 Zara tortolea.

COSAS DE NUESTRA TIERRA



La Noche-Buena en Guipúzcoa

A mi querido amigo Antonio Arzácar.

Guipuzcoano de la clase de ridículos por los tiempos que corren y nos corroen, vivo hace treinta años en Madrid, con el pensamiento fijo en San Sebastián, mi pueblo, sumido en los horrores de una nostalgia que solo un trabajo incesante mitiga durante el invierno, y desaparece por completo en el verano, cuando dejo la corte y sus penumbras y respiro el aire libre en mi ciudad natal.

Pero hay en todo el año una noche para mí famosa y temible; noche en que la nostalgia me ataca despiadadamente y me destroza el alma y el espíritu; noche en que, á pesar de hallarme rodeado del